

Euskal Turismoaren Txostena

Informe del Turismo Vasco

Negoio bidaiak

Eguneko batez besteko gastua

Viajes de negocios

Gasto medio diario

2

Negoioak direla-eta Euskadira etortzen den profesionalaren eguneko batez besteko gastua 23.709 pezetakoa da
El gasto medio diario del profesional que visita por negocios Euskadi es de 23.709 pesetas

4

Gehienak produkturen bat saltzera edo bileraren batera etortzen dira
La mayoría viene a vender un producto o asistir a una reunión

10

%43ak bi egun baino gutxiago ematen dute Euskal Herrian
El 43% permanece menos de dos días en el País Vasco



Gurera etortzen diren profesionalen eguneko batez besteko gastua

Lanbidea dela-eta gure hoteletan gaua ematen duen bidaiariaren profila eta aisialdiko turistari dagokiona erabat ezberdinak dira, zeren lehenengoaren bidaia laneko kariek eragiten baitute. Horrenbestez, negozio turismoa, Euskal Herriko turismoaren ezinbesteko sektorea ez ezik, gure erkidegoaren ekonomia osoaren eragilea ere bada.

Gasto medio diario de los profesionales que nos visitan

El viajero que por razones profesionales pernocta en nuestros hoteles, reviste un perfil claramente diferenciado de el del turista del ocio, puesto que su viaje se realiza por motivos de trabajo. El turismo de negocios resulta un sector clave del turismo vasco y también un servicio importante a la economía de Euskadi en general.

Eguneko batez besteko gastua 23.709 pezetakoa da

El gasto medio diario es de 23.709 pesetas

Euskal Autonomia Erkidegoko bi, hiru eta lau izarreko hoteletan egin den inkestaren arabera, gastu partidarik inportanteenak ostatuari (11.498 pezeta, hau da, %48'5a) eta jateari (6.621 pezeta, %28a) dagozkie. Beraz, eguneko gastuaren hiru laurdenak hoteletan edo ostalaritzaren alorrean eralgitzen dira. Aipatzeko modukoa da aisialdian eta kulturaren egiten den gastu urria (565 pezeta).

Según la encuesta realizada en hoteles de dos, tres y cuatro estrellas de las tres capitales de la Comunidad Autónoma Vasca, las partidas de gasto más importantes son el alojamiento con 11.498 pesetas (48,5%) y a la alimentación con 6.621 pesetas (28%). Es decir, las tres cuartas partes del gasto diario se realiza en los hoteles o en el ramo de la hostelería. Llama la atención el escaso gasto que se realiza en ocio y cultura (565 pesetas).

| Zenbait kontzepturengatik eguneko batez besteko gastua Gasto medio diario por diferentes conceptos | pta/pts | % |
|--|---------|------|
| Ostatua Alojamiento | 11.498 | 48,5 |
| Jatea Alimentación | 6.621 | 28 |
| Dendetako gastua (opariak eta erosketak) Gasto en comercio (regalos y compras) | 1.993 | 8,4 |
| Janaurrekoak Aperitivos | 1.600 | 6,7 |
| Garraioa Transporte | 1.432 | 6 |
| Aisialdia eta kultura Ocio y cultura | 565 | 2,4 |
| Eguneko gastua guztira pezetatan Total de pesetas de gasto diario | 23.709 | 100 |

1996ko urritik aurrera, eguneko batez besteko gastua 4.902 pezetatan igo da (profesionalen eguneko batez besteko gastua 18.807 pezetakoa zen 1996ko urrian). Beste alde batetik, aipatzekoa da aisialdian edo kultura arloan egunean gastatzen den diruaren portzentaia igo egin dela: 1996ko urrian %0,7a zen, eta 1998ko martxoan, berriz, %2,4a (132tik 565 pezetara). Guggenheim Museoa Bilbon zabaldu izanak horretan eragin handia izan duela esan dezakegu.


Desde Octubre de 1996 el gasto medio diario ha ascendido en 4.902 pesetas (los profesionales tenían un gasto medio diario de 18.807 pesetas en octubre de 1996). Por otra parte, señalar el incremento que se ha dado en el porcentaje de gasto medio diario realizado en ocio y cultura: de un 0,7% en octubre de 1996 a un 2,4% en marzo de 1998 (de 132 a 565 pesetas). Podemos pensar que la apertura del Museo Guggenheim en Bilbao ha tenido una gran incidencia al respecto.

Negozioak direla-eta EAera etortzen den profesionala 41 urteko gizona da, ikasketak maila altua duena

El profesional que visita por razones de negocios la CAPV es un hombre de 41 años y con un nivel alto de estudios

Negozioak direla-eta EAera etortzen diren profesionalen %87 gizonen dira, batez beste 41 urte eta ikasketak maila altua dutenak. Lautik hiruk (%78,4k) unibertsitate ikasketak ditu.

El 87% de los profesionales que vienen por razones de negocios a la CAPV es hombre (87%), con una media de edad de 41 años y con un nivel alto de estudios. Tres de cada cuatro (78,4%) tienen estudios universitarios.




Jatorriko ohikoena Madril edo Katalunia da

La procedencia más frecuente es la de Madrid o Cataluña

Profesional horietatik gehien jatorria Madril (%24,6) eta Katalunia (%22) dira; beste jatorri batzuk: atzerria (%13,1), Gaztela-Leon (%3,7), Valentziako Erkidegoa (%4,5), Galizia (%3,3) eta Estatuko beste erkidego batzuk (%16). Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburu hoteletan ostatu hartzen duten profesionalen %12,7a gure Erkidegoko beste herri batzuetatik etortzen dira.

La mayoría de estos profesionales procede de Madrid (24,6%) o de Cataluña (22%) y en menor medida del extranjero (13,1%), de Castilla-León (3,7%), de la Comunidad Valenciana (4,5%), de Galicia (3,3%) o de otras comunidades del Estado (16%). El 12,7% de los profesionales que se hospeda en hoteles de las tres capitales vascas proviene de otros puntos de la misma Comunidad Autónoma del País Vasco.



Gehienetan produkturen bat saltzera edo laneko bileraren batera etortzen dira

En la mayoría de los casos vienen a vender un producto o asisten a una reunión de trabajo

EAEra etortzearen arrazoirik inportanteenak produktu, makina edo halakoren bat saltzea (%27,5) edo laneko bileraren batera joatea (%26,1) izaten dira. Ezin dugu ahaztu, bestalde, profesionalen %14a ikasketak direla medio etortzen direla (irakasleak eta ikasleak). Azpimarratzekoa da hagitx profesional gutxi etorri direla erakustazokaren batera (%0,8). Kontuan hartu behar da, ezen ikerlan hau erakustazoka garrantzitsurik ez zegoen egunetan burutu zela.

Las razones más importantes para visitar la CAPV son las de vender un producto, máquina, etc. (27,5%) y la de asistir a una reunión de trabajo (26,1%). No podemos olvidar, de todas formas, que un 14% de los profesionales viene por razones académicas (profesores y alumnos). Es de subrayar el hecho de que son muy pocas personas las que han venido a una feria de muestras (0,8%). Hay que tener en cuenta que esta investigación fue realizada en fechas en las que no había ferias de importancia.


EAEra etortzearen xedea | Objeto de la visita

| | |
|---|-------|
| Produkturen bat saltzea / Vender un producto | 27,5% |
| Laneko bilera / Reunión de trabajo | 26,1% |
| Beste batzuk / Otros | 17% |
| Produkturen bat sustatzea / Promocionar un producto | 9% |
| Ikasle etortzea / Alumno | 7,8% |
| Irakasle etortzea / Profesor | 6,2% |
| Makinaren bat muntatzea / Montar una máquina | 3,3% |
| Produkturen bat erostea / Comprar un producto | 1,6% |
| Erakustazokaren batera joatea / Visitar una feria de muestras | 0,8% |
| Makinaren baten funtzionamendua ikastea / Aprender el funcionamiento de una máquina | 0,6% |



Bilboko hoteletan ostatu hartzen duten profesionalak Donostian edo Gasteizen ostatu hartzen dutenek baino gehiago gastatzen dute

Los profesionales que se hospedan en hoteles de Bilbao gastan más que los que se hospedan en San Sebastián y Vitoria



Batez beste, Bilboko hoteletan ostatu hartzen duten profesionalak Donostian ostatu hartzen dutenek baino 3.568 pezeta gehiago eta Gasteizen ostatu hartzen dutenek baino 5.979 pezeta gehiago gastatzen dute.

Los profesionales que se hospedan en hoteles de Bilbao gastan 3.568 pesetas más de media que los que se hospedan en San Sebastián y 5.979 pesetas más que los que se hospedan en Vitoria.




Hotelaren kategoría zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izaten da eguneko batez besteko gastua

A medida que aumenta la categoría del hotel aumenta el gasto medio diario

Hiru edo lau izarreko hoteletan ostatu hartzen duten profesionalak ia bikoiztu egiten dute (25.600-25.800 pezeta inguru) bi izarreko hoteletan ostatu hartzen dutenen gastua (13.250 bat pezeta).

Los profesionales que se hospedan en hoteles de tres o cuatro estrellas gastan casi el doble (en torno a las 25.600-25.800 pesetas) que los que se hospedan en hoteles de dos estrellas (cerca de 13.250 pesetas).



Kotxea da Euskal Herrira etortzeko gehien erabiltzen den garraiobidea

El coche es el medio de transporte más utilizado para venir al País Vasco

Profesionalek Euskal Autonomia Erkidegora etortzeko gehien erabiltzen duten garraiobidea kotxea da (inkestaturako pertsonen %53ak), eta ondorik, hegazkina (%36,6ak). Gainerako garraiobideak (trena, autobusa eta itsasontzia) oso gutxi erabiltzen dira (%10,1ek).


El medio de transporte que utilizan los profesionales para llegar a la CAPV es el coche (53% de las personas encuestadas) seguido del avión (36,6%). El resto de los transportes (tren, autobús y barco) son muy poco utilizados (10,1%).

Erabiltzen den garraiobidea | Medio de transporte utilizado

| | |
|----------------------|-------|
| Kotxea / Coche | 53% |
| Hegazkina / Avión | 36,6% |
| Autobusa / Autobús | 6,6% |
| Trena / Tren | 3,3% |
| Itsasontzia / Barco | 0,2% |
| Beste batzuk / Otros | 0,4% |

Nahiz eta oso gutxi izan Euskal Herrira trenez etortzen diren profesionalak, garraiobide hau erabiltzen dutenek beste garraiobideren batez baliatzen direnek baino batez besteko gastu handiagoak dituztela nabarmentzen da (41.000 pezeta). Gastuari dagokionez, bigarren taldean itsasontziz, hegazkinez edo inkestan zehaztu gabeko beste garraiobideren batez etortzen diren profesionalak daude (25.000-26.000 pezeta inguru gastatzen dute). Azkenik, kotxez edo autobusez etortzen direnak aipatu behar dira, eta horiek 19.000-20.000 bat pezeta gastatzen dute.

Si bien son muy pocos los profesionales que vienen en tren al País Vasco, se observa que los que utilizan este medio de transporte tienen unos gastos medios superiores a los que utilizan otro medio de transporte (41.000 pesetas). En un segundo grupo en cuanto al gasto se refiere están aquellos que vienen en barco, avión o a través de algún medio no especificado en la encuesta (en torno a las 25.000-26.000 pesetas). Por último estarían aquellos que vienen en coche o en autobús que gastan en torno a las 19.000-20.000 pesetas.



Egutegoko batez besteko gastua erabiltutako garraiobidearen arabera - pts
Gasto medio diario por transporte utilizado - pts





Profesionalen %95ak bakarrik edo lankideekin bidaiatzen du

El 95% de los profesionales viajan solos o con compañeros de trabajo

Negoziok direla-eta EHAera etortzen diren pertsonarik gehienak bakarrik (%54,8) edo lankideekin (%40,2) etortzen dira.


La mayoría de las personas que vienen por razones de negocios a la CAPV vienen solos/as (54,8%) o con los compañeros de trabajo (40,2 %).



Eguneko batez besteko gasturik handiena duten profesionalak lagunarekin edo/eta seme-alabekin bidaiatzen dutenak dira. Gutxien gastatzen dutenak, berriz, adiskideekin etortzen direnak dira. Bi talde horien artean daude bakarrik edo lankideekin bidaiatzen dutenak, hots, EHAera negozioak direla-eta etortzen diren pertsonarik gehienak. Talde honetako profesionalak 21.500-23.500 pezeta inguru gastatzen dute.

Los que mayor gasto medio diario tienen son profesionales que viajan con su pareja y/o con los hijos/as. Los que menos gastan son aquellos/as que viajan con sus amigos. En medio de estos dos grupos están los que viajan solos o con los compañeros de trabajo que son la mayoría de las personas que vienen por razones de negocios a la CAPV. Este grupo gasta en torno a las 21.500-23.500 pesetas.

Zenbat eta egun gehiago egon EAEn, orduan eta txikiagoa izaten da eguneko batez besteko gastua



El gasto medio diario se reduce a medida que aumenta el número de días en la CAPV

Euskal Herrian hilabete baino gehiago egoten diren profesionalen eguneko batez besteko gastua 13.000 pezetakoa da; astebete baino gutxiago egoten direnek, berriz, egunero 23.000 pezeta inguru gastatzen dute, batez beste.

Los profesionales que van a estar más de un mes afirman tener un gasto diario de 13.000 pesetas mientras que los que están un período de tiempo inferior a la semana tienen unos gastos medios diarios cercanos a las 23.000 pesetas.


Eguneko batez besteko gastua, EHAEn igarotzen diren egunen arabera - pta
Gasto medio diario por días en la CAPV - pts

Katalanak eta euskaldunak dira gutxien gastatzen dutenak

Los que menos gastan son los catalanes y los vascos

Egunean batez beste gutxien gastatzen duten profesionalak Euskal Herrikoak bertakoak eta Kataluniatik datozenak dira (18.000-19.000 pezeta inguru). Gehien gastatzen dutenak, ostera, atzerrikoak dira (26.000-27.000 pezeta inguru).

Los que menos gasto medio diario realizan son los profesionales de la propia Comunidad Autónoma Vasca y los procedentes de Cataluña (en torno a las 18.000-19.000 pesetas), siendo los extranjeros los que más gastan (en torno a las 26.000-27.000 pesetas).




Eguneko batez besteko gastua jatorriaren arabera - pta
Gasto medio diario por lugar de procedencia - pts



Zenbat eta adin handiagoa, orduan eta gastu handiagoa

A medida que aumenta la edad aumenta el gasto realizado



Gizonezkoen eta emakumezkoen eguneko batez besteko gastuaren artean alde adierazgarriak izan ez arren, badira alde esanguratsuak adin-talde ezberdinen artean. Ildo hori jarraiki, 30 urtetik beherako profesionalen eguneko batez besteko gastua 20.652 pezetakoa da, eta 60 urtetik gorakoek, ordea, 28.700 pezetakoa gastatzen dute, batez beste. 31-59 urte bitarteko pertsonen gastua ez da bereziki batez bestekotik aldentzen.

Si bien no existen diferencias significativas en el gasto medio diario entre hombres y mujeres, si se observan diferencias significativas entre los distintos grupos de edad. En este sentido, observamos que los menores de 30 años tienen un gasto medio diario de 20.652 pesetas mientras que los mayores de 60 años gastan 28.700 pesetas. Las personas que están entre los 31 y los 59 años no se diferencian significativamente respecto de la media.

Profesionalik gehienek adierazten dute ez dutela aisiarako astirik EAEn dauden aldiak

La mayoría de los profesionales señalan que no tienen tiempo para el ocio durante su estancia en la CAPV

Negozioak direla-eta EAera etortzen diren profesionalen %32,4ak ez du lan jardueraz gain beste inolako jarduerarik egiten (inkestaturiko pertsonen %24,4ak adierazten du ez duela aisialdirako astirik eta %8a hotelean bertan geratzen da), %23,4ak ostalaritza arloan (afariak, kopak...) ematen du bere astialdia, eta %28,1ek hiria bisitatzen du. Ondokoak dira gutxien jorratzen diren jarduerak: kultura (pertsonek %8,8ak denbora ematen eta dirua gastatzen du museo, erakusketa, antzerki, zine eta abarretan), probintziako edo EAeko beste herri batzuk ezagutzeko (%1,6ak), adiskideak bisitatzea (%3,1ek) edo inkestan zehazten ez diren jarduerak burutzeko (%2,5ek).

El 32,4% de los profesionales que vienen por razones de negocios a la CAPV no realiza ningún tipo de actividad fuera de lo que es su actividad laboral (24,4% de las personas encuestadas señalan que no tienen tiempo de ocio y el 8% se queda en el hotel), el 23,4% emplea su tiempo de ocio en el ramo de la hostelería (cena, copas...) y el 28,1% visita la ciudad. Las actividades menos populares son la cultura (el 8,8% de las personas gasta su tiempo y dinero en museos, exposiciones, teatro, cine...), conocer otros pueblos de la provincia o de la CAPV (1,6%), visitar a amigos/as (3,1%). O realizar actividades no especificadas en la encuesta (2,5%).

Aisiaren erabilera EHAEko egonaldian zehar | Empleo del tiempo de ocio durante la

| | |
|--|-------|
| Hiria bisitatzea / Visita a la ciudad | 28,1% |
| Ez dut aisiarako astirik / No tengo tiempo de ocio | 24,4% |
| Afaria / Cena | 16,6% |
| Hotelean geratzen naiz / Me quedo en el hotel | 8% |
| Kopak hartzea / De copas | 6,8% |
| Museoak eta erakusketak / Museos y exposiciones | 4,9% |
| Antzerkia, zinea, opera... / Teatro, cine, ópera... | 3,9% |
| Adiskideak bisitatzea / Visita a amigos | 3,1% |
| Beste jarduera batzuk / Otras actividades | 2,5% |
| Probintziako herriak bisitatzea / Visita pueblos provincia | 1% |
| Beste herri batzuk bisitatzea / Visita a otros pueblos | 0,6% |


Gehienek bi egun baino gutxiago ematen dute Euskal Herrian

La mayoría permanece menos de dos días en el País Vasco



la profesionalen erdiak (%43,5ak) bi egunetik beherako egonaldia izaten du gurean, %32,6a hiru-lau egunean egoten da, eta %16,2a bost egunetik astebetera.

Casi la mitad de los profesionales (43,5%) reduce su estancia media a menos de dos días, el 32,6% permanece tres o cuatro días y el 16,2% entre 5 días y una semana.



Bisitari mota hau Euskal Herrira etortzearen kari diren jarduerak burutzeko justu-justu behar den egun kopurua baino egon ez arren, gehienek (%54,8ak) adierazten dute aisiako turista ere izan daitezkeela, arruntean oporretan edo asteburuko txangoak eginez. Euskal Herrian denbora gehiago igarotzearen

aldeko jarrera erakusten duen profesional hori pertsona gaztea da (horietarik %55ak 40 urte baino gutxiago dauka), ikasketak maila altua duena (%59,1ak goi ikasketak edo graduondokoak ditu); kotzez eta nagusiki hegazkinez bidaiatzen du (%45,3ak) eta Kataluniatik eta batez ere Madrildik etortzen da. Madrildarren %66,7ak EHAEn denbora gehiago igarotzearen aldeko jarrera erakusten du. Batez bestekotik gorako gastua (eguneko 24.811 pezeta) egiten duen profesionala da, eta berorietarik %87ak prest egongo litzateke familia edo/eta adiskideak Erkidegora ekartzeko.

Si bien es un tipo de visitante que está justo el número de días imprescindible para llevar a cabo las actividades que le han traído al País Vasco, la mayoría (el 54,8%), declara que podría ser un potencial turista de ocio, normalmente en sus períodos vacacionales o de fin de semana. Este profesional que muestra una actitud positiva a permanecer más tiempo en el País Vasco, es una persona joven (el 55% de los mismos tienen menos de 40 años), con un nivel alto de estudios (el 59,1% tiene estudios superiores o de postgrado), que viaja en coche y fundamentalmente en avión (45,3%) y proviene de Cataluña y sobre todo de Madrid. El 66,7% de los madrileños muestra una actitud positiva a quedarse más días en la CAPV. Es un profesional que tiene unos niveles de gasto superiores a la media (24.811 pesetas diarias) y que en un 87% de los casos estaría dispuesto a traer a su familia y/o amigos a la Comunidad.


Profesionalek atsegin lukete EAeko beste herri eta hiri batzuk ezagutzeko aukera emango lukeen turismoa

A los profesionales les gustaría un turismo que posibilite conocer otros pueblos y ciudades de la CAPV

Profesional horiek gera daitezten, edo Euskal Herriko Autonomia Erkidegora lanetik aparteko egunetan itzul daitezten xedez, Erkidegoaren beste herri eta hiri batzuk ezagutzeko aukera ematen duen eskaintza turistikoa egin behar da (%32ak eskatzen du hori). Horrekin batera, kultur eskaintza egokia egin behar litzateke (%19,9ak), bai eta Euskal Herriko natura (%14,6ak) eta gastronomia (%17ak) ezagutzeko aukera ematen duen eskaintza turistikoa ere.

Para que estos profesionales se queden, o vuelvan más días de los netamente imprescindibles a la Comunidad Autónoma del País Vasco es preciso un tipo de oferta turística que posibilite conocer otros pueblos y ciudades de la comunidad (32%). Unido a esto habría que hacer una oferta cultural adecuada (19,9%) además de una oferta turística que posibilitara el conocimiento de la naturaleza (14,6%) y de la gastronomía (17%) del País Vasco.

Zein eskaintza turistikoa atsegin izango zenuke EAEn egun gehiagotan geratzeko? | ¿Qué tipo de oferta turística le gustaría para quedarse más días en la CAPV?



Profesionalok lanean etortzen dira eta gehienek bi egun baino gutxiago ematen dute Euskal Herrian; hala ere, aipatzeko modukoa da egonaldia luzatzeko erakusten duten jarrera positiboa, nahiz eta hori laneo bidaietan gertatu ez, beste batzuetan baizik. Ildo horri jarraiki, egun egiten den eskaintza turistikoa hobetu eta dibertsifikatuz gero, profesional hauek aisiako turismoaren balizko bezero bihurtu daitezke, zalantzarik gabe.

Si bien los profesionales vienen a trabajar y la mayoría permanece menos de dos días en el País Vasco, es significativo su actitud positiva a aumentar su tiempo de estancia aunque normalmente este aumento no se produzca durante sus viajes de trabajo sino en otras ocasiones. En este sentido, no hay duda de que mejorando y diversificando la oferta turística que se realiza actualmente, se podría convertirlos en potenciales clientes del turismo de ocio.

Negozioak direla-eta Euskal Herria bisitatu eta Erkidegoaren hiru hiriburuetak bi, hiru eta lau izarreko hoteletan ostatu hartzen duten profesionalen eguneko batez besteko gastuari buruzko inkestaren emaitza nagusiak jasotzen ditu argitalpen honek. Ikerlanaren oinarri diren 487 inkestak 1998ko martxoaren hirugarren astean lortu ziren, hautaturiko 15 hoteletako harrera-geletan inkestagile bat jarritz. Euskal Herriko Unibertsitatearen Politika eta Administrazio Zientziako Sailaren Euskobarometro taldeak zuzendu zuen ikerlana.

La presente publicación recoge los principales resultados de la encuesta sobre gasto medio diario de los profesionales que visitan por razones de negocios el País Vasco y se hospedan en hoteles de dos, tres y cuatro estrellas de las tres capitales de la comunidad. Las 487 encuestas en las que se basa la investigación fueron obtenidas la tercera semana de marzo de 1998 a través de encuestador en los recibidores de 15 hoteles seleccionados. La investigación fue dirigida por el Equipo Euskobarometro del Departamento de Ciencia Política y de la Administración de la UPV-EHU.

Atsegin handiz
Euskadi
PAÍS VASCO
Con mucho gusto

Argibide gehiago behar izanez gero

Harremanetarako telefonoa: 945 01 99 27 / Fax: 945 01 99 31 / e-mail: J-Yarza@ej-gv.es

Web: www.eustat.es

Laster: Euskal turismoaren estatistika orokorrak: www.euskadi.net/turismo

Para más información:

Teléfono de contacto: 945 01 99 27 / Fax: 945 01 99 31 / e-mail: J-Yarza@ej-gv.es

Web: www.eustat.es

Próximamente: Estadísticas generales del turismo vasco: www.euskadi.net/turismo

EUSKO JAURLARTZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATUTZA
ETA TURISMOA SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA
COMERCIO Y TURISMO

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz